URDULIZKO LORATEGI, PARKE ETA BERDEGUNEAK KONTSERBATU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN PRESTAZIOA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA:

1.- KONTRATUAREN XEDEA
2.- KONTRATUAREN EREMUA
3.- EGIN BEHARREKO LANAK
3.01. Ureztatzea.
3.02. Soropila moztea.
3.03. Heskaiak eta zuhaixkak moztu eta inaustea.
3.04. Inaustea.
3.05. Lurra harrotu eta jorratzea.
3.06. Garbitzea, oro har.
3.07. Belar txarrak kentzea.
3.08. Ongarritzea.
3.09. Tratamendu herbizida eta fitosanitarioak ematea.
3.10. Zuhaitz lehorrak eta adarrak erretiratzea.
3.11. Soropilaren ertzak moztea.
3.12. Denboraldiko landaketak egitea.
3.13. Ordezkapenak egitea.
3.14. Txorkoak mantentzea.
3.15. Ureztapen-sistema automatikoa mantentzea.
3.16. Landaretza-hondarrak garraiatzea.
3.17. Kanposantuak mantentzea.
3.18. Santa Marina ingurua mantentzea.
3.19. Oinezko ibilbideak eta bidegorriak mantentzea.
3.20. Lorategien txosten teknikoak eta diseinuak egitea.
3.21. Egindako lanen txostena prestatzea.
3.22. Eskolako ortua.
4.- GIZA BALIABIDEAK
5.- BITARTEKO MATERIALAK
6.- ZERBITZUAREN ALDERDI OROKORRAK
7.- ZERBITZUAREN KONTROLA
VI. ERANSKINA. KALE MAPA
8.- KONTRATATZEKO GAIKUNTZAREN BETEKIZUNA. SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALA (ENS) BETETZEA

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

URDULIZKO UDALAREN JABETZAKO BERDEGUNEAK KONTSERBATU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Agiri honen xedea da Urdulizko udalerriko lorategiak, parkeak eta berdeguneak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea, metodo, praktika eta produktu jasangarriagoei jarraituz, kategoria hauetan sailkatzen diren eremuak barne hartuta:

- Parkeak eta lorategi-guneak.
- Jardinerak.
- Bideko espazio berdeak.
- Ezpondak.
- Espazio berde gisa gaitutako udal-eremuak.
- Zuhaitzak.
- Denboraldiko landareak.
- Oinezko ibilbideak eta bidegorriak.
- Kanposantu ingurua.
- Futbol-zelaiak.
- Santa Marinako parkea.

2.- Eremu horietan, pertsona esleipendunak beharrezko lorezaintza-teknika guztiak gauzatuko ditu lorategi, parke eta berdeguneetako elementuek egoera onean eta luzaroan iraun dezaten, beren jatorrizko baldintzetan, bai eta horiek osatzen dituzten elementuen balio botanikoa eta apaindurazkoa hobetu eta aberasten laguntzeko ere. Horretarako, lorezaintza-teknika jasangarriak aplikatuko ditu.

3.- Pertsona esleipendunak ahalik eta gehien murriztu beharko ditu zerbitzua eman bitartean ingurumenaren –orokorrean–, atmosferaren, lurzoruaren, baliabide hidrikoen eta bestelako ondasun naturalen gainean sor daitezkeen ingurumen-eraginak.

2.- KONTRATUAREN EREMUA

1.- Kontratuaren eremuan Urdulizko udal-mugarteko jabari eta erabilera publikoko eremuetan dauden berdegune eta zuhaitz guztiak sartzen dira, hots, **VI. eranskineko** planoan adierazitakoak.

Kontratuaren xede diren eremuetan, Udalak askatasun osoa edukiko du kontserbatu behar diren berdeguneetan obra berriak edo hobekuntzak egiteko. Horretarako, lore-landareen multzo berriak sor daitezke, baita larre berriak ere, edo zuhaitzak landatu, tokiz aldatu eta egokitzat jotzen diren bestelako jarduerak egin.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Pertsona esleipendunak ezin izango ditu obra berriak edo berrikuntzak egin, baldin eta horiek kontserbatu beharreko elementuen trazadura edo ezaugarriak aldatzen badituzte. Salbuespena izango da Udalak berak berariaz halakorik baimentzen badu.

Pertsona esleipendunak bere gain hartzen du lorategi eta berdegune berriak –esleipenaren gainerako baldintza berberetan– kontserbatzeko lana onartzea, baldin eta, obra berriak, handitzeak, urbanizazioen onarpenak, erosketak edo bestelako formulak direla-eta, udalaren jarduera-eremua handitzen badute, eta betiere Udalak hala erabakitzen badu.

2.- Eremu bakoitza mantentzeko, honako kategoria hauek ezarri dira.

A eremua: herrigunea.
B eremua: Santa Marinako parkea.

Udalerriko berdeguneek osatzen dituzten eremuen zerrenda eta azalera, gutxi gorabehera, **VI. eranskinean** adierazten dira. Azalera, guztira, 101.451 m^2 ingurukoa da.

3.- Zuhaitz, zuhaixka eta lore-landareen inbentarioa.

Enpresa esleipendunak inbentario bat egin beharko du kontratuaren lehenengo urtean, eta urte bakoitzaren amaieran urtean zehar landare-ondarean izan diren aldaketa guztiak aurkeztu beharko ditu, Udal Inbentarioa eguneratuta edukitzeko:

- Lerrokadura-zuhaitzak.
- Lorategi edo parke bakoitzeko zuhaitzak eta zuhaixkak.
- Jardineretan dauden landareak eta horien kopurua.
- Gaixotasun edo izurriteen eragina izan duten landareen zerrenda (urtero).

4.- Udalak eremu horiek egungo egoeran kontserbatzeko lana kontratatuko du, eguraldiak eta etengabeko zaintzak sortzen dituzten hobekuntza naturalekin. Enpresa esleipendunak kontratuaren xedearen barruan honako hauek onartu beharko ditu: sortu berri diren parkeak, berdeguneak eta lerrokadura-zuhaiztiak, baldin eta, obra berriak, handitzeak, urbanizazioen onarpenak edo era guztietako erosketak direla-eta, udalaren jarduketa-azalera handitzen badute, esleipenaren gainerakoaren baldintza berberetan, Udalak hala erabakitzen badu, edozein egoeratan daudela ere, eta lizitatzen den prezioan, betiere kontratu honen xede den edozein eremutan azalera horrek ez badu gainditzen baldintza teknikoen agirian zehaztutako jarduera-eremuaren gutxi gorabeherako azalera osoaren % 10.

Ehuneko hori gainditzen bada, egungo prezioa igo egingo da, azalera igo den proportzioan. Gainerako baldintza tekniko eta administratiboek beren horretan jarraituko dute. Era berean, kasu honetan enpresa esleipendunak langileen kopurua areagotu beharko du, sartu den azalera-igoeraren proportzioan.

3.- EGIN BEHARREKO LANAK

Jarraian zehazten diren lan guztiak nahitaez egin beharrekoak dira.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Agiri honetan gutxieneko gisa ezartzen diren maiztasunak aitzakiarik gabe bete beharko dira. Lanak egiten ez badira edo partzialki egiten badira, hileroko ziurtagiritik kenduko da neurketaren arabera egin ez den edo partzialki egin den lana.

3.01.- Garatu beharreko jarduerak.

Lorezaintzan botanika- eta apainketa-mailako garapen egokia lortzeko lanen multzoa egiteko, lan espezifiko bakoitzerako baldintza bereziak beteko dira. Hona hemen baldintza horiek:

3.01. Ureztatzea.
3.02. Soropila moztea.
3.03. Heskaiak eta zuhaixkak moztu eta inaustea.
3.04. Inaustea.
3.05. Lurra harrotu eta jorratzea.
3.06. Garbitzea, oro har.
3.07. Belar txarrak kentzea.
3.08. Ongarritzea.
3.09. Tratamendu herbizida eta fitosanitarioak ematea.
3.10. Zuhaitz lehorrak eta adarrak erretiratzea.
3.11. Soropilaren ertzak moztea.
3.12. Denboraldiko landaketak egitea.
3.13. Ordezkapenak egitea.
3.14. Txorkoak mantentzea.
3.15. Ureztapen-sistema automatikoa mantentzea.
3.16. Landaretza-hondarrak garraiatzea.
3.17. Kanposantu ingurua mantentzea.
3.18. Santa Marina ingurua mantentzea.
3.19. Oinezko ibilbideak eta bidegorriak mantentzea.
3.20. Lorategien txosten teknikoak eta diseinuak egitea.
3.21. Egindako lanen txostena prestatzea.
3.22. Eskolako ortua.

<u>3.01. UREZTATZEA</u>

Ureztatze-lanek gutxieneko batzuk errespetatu beharko dituzte, baliabidearen optimizazioa eta eragiketen kalitatea bermatzeko.

Ureztatze-lanak modu ezberdinetan egingo dira, ureztatu beharreko azaleraren arabera. Aspertsore bidezko ureztatze-sistema duten eremuetan, beharrezko azterketa- eta mantentze-lanak egingo dira, horiek erabili baino lehen.

Udan dauden euri-jasen araberakoak izango dira ureztatze-lanak. Lan horiek hasi baino lehen, enpresak txostena aurkeztu beharko du, landaretzaren beharrizan hidrikoak zein diren adierazita. Ondoren, Udaleko erabaki-organoak txosten hori onartu beharko du.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Ureztatze-lanak eremuka antolatuko dira. Eremu horiek Udaleko erabaki-organoarekin batera zehaztuko dira, udalerriaren interesaren arabera. Hala ere, landare-multzoa ureztatzeko lehentasun-ordena jarraitu beharko da: lehenik eta behin zuhaitzak ureztatuko dira, gero zuhaixkak, eta, azkenik, belarrak. Ureztatze programaturik ez duten lore-guneak eta jardinerak astean behin ureztatuko dira udan, prezipitazio-erregimena edozein dela ere.

Urdulizko Udalaren konturakoa izango da kontsumitutako ura, eta enpresa esleipendunak ez du erabili beharko ureztatzeko behar-beharrezkoa dena baino ur gehiago. Halaber, gaizki itxitako ureztatze-ahoen edo beste edozein arrazoiren ondorioz galerarik izan ez dadila zainduko du, eta edozein matxura berehala zuzenduko du.

3.02. SOROPILAK MOZTEA

Berdeguneak aldizka moztuko dira, soropil trinko eta indartsua lortzeko, belar edo espezie gaiztorik gabe. Izan ere, denbora igaro ahala, belar eta espezie horiek hasierakoak ordezkatzeko joera izaten dute.

Moztu beharreko azalera urtean guztira 101.451 m^2-koa izango da.

Eremuaren araberako gutxieneko maiztasuna honako hau izango da:

A eremua: herrigunea
B eremua: Santa Marinako parkea.

	Urtarrila-Martxoa			Apirila-Iraila						Urria-Abendua		
A EREMUA Herrigunea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Gutxieneko maiztasuna	30 egun			7 egun						30 egun		

	Urtarrila-Martxoa			Apirila-Iraila						Urria-Abendua		
B EREMUA Santa Marina	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Gutxieneko maiztasuna	90 egun (mozketa 1)			2 mozketa, kontuan hartuta apiriletik maiatzera egingo dela lehena eta uztailetik abuztura bigarrena						90 egun (mozketa 1)		

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Udaberriaren sarrera biologikoa aurreratuko balitz, lehen zutabean aipatutako mozketen maiztasuna ere aurreratu egingo litzateke.

Xede horretarako erabiltzen den makineria eskaintzan deskribatuko du lizitatzaileak, eta txosten teknikoan modu arrazoituan zenbatuko du.

Moztutako belarra enpresa esleipendunak berak lekualdatuko du birziklapen-planta edo konpostegi batera. Horren egiaztagiria, zehazki, Udalak adierazitako zerbitzu-buruari aurkeztuko zaio. Enpresa esleipendunak ordainduko ditu dagozkion gastuak.

Belarra mozteko eragiketa bakoitzaren ondoren, berehala kenduko dira arrasto guztiak, tamainak bereizi gabe.

Udan edo bero handiko baldintzetan, mozketaren gutxieneko altuera igoko da, landareen estres-baldintzak murrizteko.

3.03. HESKAIAK ETA ZUHAIXKAK MOZTU ETA INAUSTEA

Hazkunde libreko edo zuzenduko zuhaixken formazio-inausketa eta okerdurak sartzen dira lan hauen barruan, eta landareen eraketa eta landaretza hobetzeko garairik eta modurik egokienean egingo dira lanak, eremu bakoitzeko baldintza espezifikoetan adierazten den adina aldiz.

Urtean bi mozketa egingo dira, landareek landaretza hobea izateko eta landareok ondo egituratzeko behar diren garai eta formetan.

Heskaiak eta zuhaixkak moztu eta inausteko lanen hondarrak birziklapen-planta edo konpostegira garraiatu beharko dira (adibidez: Artigas konpostegira), esleipendunaren kontura.

3.04. INAUSTEA

Inausketa-lanak egitean, pertsona esleipendunak kontuan hartu beharko du garai egokia dela horretarako. Garai egokiaren barruan, era berean, hiru mota bereizi behar dira:

Formazio-inausketa: zuhaitz gazteetan eta landatu berrietan egiten da, landaretzaren gainerakoa eutsiko duen egitura sendo bat lortu arte.

Mantentze-inausketa: zuhaitza bere ezaugarriekin mantentzeko egiten da, hau da, tamaina, loratzea eta abar mantentzeko, kasuan kasuko lekuaren mugekin. Halaber, inausketa-lan puntualak ere egingo dira, inguruko auzokideak kexu badira adarrak eraikinetako fatxadetatik hurbil daudelako. Fatxadaren eta adarren artean gutxienez metro bateko distantzia errespetatu beharko da.

Era berean, urtero inausiko dira landa-bideak inbaditzen dituzten zuhaitzak eta erortzeko arriskuan daudenak.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Eraberritzeko inausketa: Adar hilak kendu eta zuhaitza aireztatu baino ez da egingo, luzeraren herena moztuz edo azken urteko adarrak kenduta.

Gainera, kontuan hartu beharko da:

- Lehenik eta behin, gaixorik, hondatuta edo hilda dauden adarrak inausiko dira.
- Adar bizi eta osasuntsuak kentzea honako arrazoi hauetan bakarrik egongo da justifikatuta: adaburua argitzeko, sustraien galera konpentsatzeko, zuhaitzari forma ona emateko eta zuhaitz zaharrak edo ez oso indartsuak biziberritzeko.
- Ondo baino hobeto ezabatuko dira gaizki zuzenduriko adar txikiak, gurutzatuak edo bateratuegiak, zuhaitzaren berezko forma mantentzeko.
- Inausketa oso bortitzak saihestuko dira, eta kasu zehatzetan baino ez dira egingo, betiere Udaleko arduradun teknikoak hala aginduta.
- Koniferoak ez dira inausi behar, baizik eta soilik adar-puntak okertu eta adar hilak kendu.
- Saihestu egin beharko da 10 cm-tik gorako diametroa duten adar lodiak moztea, eta hori gertatzen bada, ezinbestekoa delako, fungizida orbaintzaile bat aplikatuko da berehala.
- Udaberrian loratzen diren zuhaitzak edo zuhaixkak loratu eta berehala inausi daitezke.
- Udan loratzen diren zuhaitzak edo zuhaixkak neguan inausi daitezke.
- Apaindurazko hostotza duten zuhaitzak eta milazkak udazkenean inausi behar dira.
- Horma-formako formazioak ahal dela landaredi-garaian eta adarren bat 3 cm-tik gora dagoenean inausiko dira.
- Inausketan, landarearen zati guztietan ahalik eta aireztapen eta eguzkitze gehien sortzen saiatu behar da.
- Behin betiko ezabatzen diren adarrak txertatze-puntutik ahalik eta hurbilen moztu beharko dira.
- Inausketako egurra egun berean zatitu, lotu eta eraman beharko da konpostegira edo birziklapen-plantara.

Pertsona esleipendunak, lan hori egiteko beharrezkoak diren ebaketa-tresna guztiak eta horiek egiteko behar diren bitarteko mekanikoak (inausketarako aldamioak, kamioi arina, edo saskia eta beso teleskopikoa dituen plataforma) eduki beharko ditu.

3.05. LURRA HARROTU ETA JORRATZEA

Landatutako zuhaitzei eta zuhaixkei, bai lur-eremuan, bai berdegunean, harrotze-lanak egingo zaizkie, eremu bakoitzeko baldintza espezifikoetan adierazten diren garaietan.
Loreen multzoetan ere maiz egingo dira harrotze-lanak, belar txarrik egon ez dadin eta lurzoruaren egoera onari eutsi dakion. Maiztasuna tokian tokiko klimatologiaren araberakoa izango da.

Soropiletan, lore-guneetan eta txorkoetan eskuz egingo dira harrotze-lanak, beharrezko maiztasunarekin, landare arrotzak eta belar txarrak ezabatzeko eta lurzoruaren egiturari eusteko.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Ezin izango da herbizidarik erabili, Udaleko zerbitzu teknikoek aldez aurretik baimena eman ezean.

3.06. GARBITZEA, OROKORREAN

Berdegune guztiak etengabe garbituko dira, eta bertan agertzen diren lan-hondar guztiak ezabatu egingo dira.

Berez hazten den landaredia (belar txarrak), orbelak, sega-lanen hondarrak, ebaketak eta inausketak zein edozein arrazoirengatik utz daitezkeen paperak, hondakinak eta zaborrak kendu beharko dira.

Orbela kentzeko lanean arreta berezia jarriko da, bai berdeguneetan, bai lur-eremuetan.

3.07. BELAR TXARRAK GARBITZEA

Berez hazten den landaretza ezabatuko da, hau da, belar txarrak. Honako arlo hauetan arreta berezia jarriko da:

Berdeguneak edo lorategiak zintarrien bidez mugatzen dira, eta, hala, zolatutako espazio publikoetatik bereizten dira. Zintarri horien ondoan eta zoladuraren gainean belar txarrak ugaritzen dira, inguruari itxura zaindugabea ematen diotenak.

Zoladura gainean eta berdeguneetatik hurbil dagoen belar txar guztia hilero garbituko da.

Eragiketa hori mekanikoki edo eskuz bakarrik egingo da. Ezin izango da herbizidarik erabili, Udaleko zerbitzu teknikoek aldez aurretik baimena eman ezean.

3.08. ONGARRITZEA

Lorategi-eremu eta zuhaitz guztien ongarritze orokorra egingo da urtero, lurzoruaren baldintzen araberako produktu eta dosiekin.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontserbatu beharreko espezieetan funtsezko elementuren bat falta delako sintomak badaude, kontratista esleipenduna behartuta egongo da gabezia horiek zuzentzera, horretarako behar diren elementuak emanez.

Era berean, egoera bereziengatik belardian mantenugaien aparteko ekarpena behar bada (berdegunearen gehiegizko edo ezohiko erabileragatik, estresagatik, etab.), ongarritu egingo da, Udaleko Zerbitzu Teknikoen erabakiz.

Kasu guztietan, lanak egiteko beharrezko ongarria pertsona esleipendunak jarriko du.

3.09. TRATAMENDU HERBIZIDAK ETA FITOSANITARIOAK EMATEA

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Aldian-aldian, izurriteak eta gaixotasunak aztertuko dira, beharrezko prebentzio-, zaintza- eta kontrol-neurriak hartuta.

Zuhaitzen, zuhaixken, landare belarkaren/bizikorren eta soropilen egoera ona mantentzeko beharrezko tratamenduak egingo dira.

Aplikatuko diren bitartekoak eta prozedurak eraginkorrak izango dira (ez toxikoak), eta udal-baimena beharko dute. Tratamendu-orduek ez dute auzoan kalterik eragingo.

Enpresa esleipendunak informazio teknikoko sistemak eta langile kualifikatuak izan beharko ditu, proposatzen diren neurrien arabera tratamenduak aplikatu, kontrolatu eta jarraipena egin ahal izateko.

Produktu kimikoak Udalaren aldez aurreko baimenarekin bakarrik erabili ahal izango dira, eta Nekazaritza Ministerioaren Produktu Fitosanitarioen Erregistroan sartuta egon beharko dute.

GAIXOTASUNAK ETA IZURRITEAK KONTROLATZEA: Produktu fitosanitarioak erabiltzeak nahi ez diren ondorio kaltegarriak eragin ditzake xede-organismoak ez diren horietan, batez ere pertsonengan, bai eta ingurumenean ere. Horregatik, Udal Zerbitzu Teknikoak erabilera publikoko parke eta lorategietan pestiziden erabilera murriztearen alde egiten du, eta, horren ordez, mantentze jasangarriarekin bateragarriak diren beste neurri batzuk sustatzen ditu.

Kontratatutako enpresaren eskumena izango da izurriteen eta gaixotasunen balizko arazoak identifikatzea, eta udala arduratuko da, bestalde, tratamendu horiek baimentzeaz eta zehazteaz. Horretarako, enpresa lizitatzaileak izurriteak kontrolatzeko plan integral bat aurkeztu behar du, arazo bakoitzari (prebentiboa, mekanikoa, termikoa, biologikoa) emango zaion tratamendua eta kasu bakoitzean erabiliko diren produktuak zehaztuz.

3.10. ZUHAITZ LEHORRAK ETA ADARRAK KENTZEA

Pertsona esleipendunak edozein zuhaitz, zuhaixka edo horien zatiak moztu edo aterako ditu, eta udal-zerbitzu teknikoek erabakitzen duten tokian jasoko ditu, bai pertsonen osotasunerako arriskua dagoelako, bai semaforo, ispilu eta abarren ikuspena oztopatzen dutelako, Udalak kentzeko adierazten badu.

Udalak adierazi bezain laster, esleipendunak jaso egingo ditu arrazoi naturalengatik edo ekintza bandalikoengatik hautsi diren zuhaitz eta zuhaixken zatiak.

Lan hori egiteko, inausketa-hondarrak kentzeko behar diren bitarteko mekanikoak izan beharko ditu.

3.11. SOROPILEN ERTZAK MOZTEA

Inbaditutako soropil eta zuhaixka-multzoen ertzetako landare-mugaketa eta -garbiketa egingo da halakorik behar duten ertz guztietan.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Eragiketa hori urtean bi aldiz egingo da.

3.12. DENBORALDIKO LANDAKETAK EGITEA

Denboraldiko landaketei dagokienez, sasoiko lorea hornitu eta landatzeaz pertsona esleipenduna arduratuko da, udazkenean eta udaberrian, azalera berean, lehen zegoen dentsitatearekin eta oinarrizko landarearen proportzio berdinarekin. Era berean, Udalak lore-parterre berriak gehitu, gutxitu edo sortu ahal izango ditu, eta esleipendunaren kontura izango dira eragiketa horiek.

Erabilitako landareak autoktonoak izango dira, eta debekatuta egongo da espezie inbaditzaileak erabiltzea.

Sasoiko lorearen erabilera oso eremu zehatzetara mugatuko da, ur- eta ongarritze-eskakizun handiak dituelako eta mantentzearen kostua handia delako. Bestela, ordezkapenik behar ez duten loredun landare bizikorrak edo landare erraboildunak erabili ahal izango dira. Espezieak beren behar hidrikoen arabera jarriko dira, eta izurrien aurkako borrokan osagarriak diren espezieen landareak taldekatu egingo dira; horri guztiari esker, uraren eta produktu bioziden kontsumoa murriztu ahal izango da.

Berdeguneak ahalik eta gehien naturalizatuko dira, espezie autoktonoak edo naturalizatuak jarriz; izan ere, baldintza klimatikoekiko erresistenteak izateaz gain, ingurune naturalari jarraipena eta konektibitatea ematen diote.

Lore-gune guztietan landaketak egin ondoren, egoera onean mantenduko ditu pertsona esleipendunak, hasierako diseinuarekin lortutakoa gal ez dadin.

Landaketa egiterakoan, pertsona esleipendunak kontuan izan beharko du landaketa-esparrua, landareen arteko distantzia egokia izan dadin errendimendu estetikoa sustatzeko eta mantentze-lanak errazteko.

Landaketa egin aurretik, adierazitako landaketa-lekua prestatu beharko da, lurra gutxienez 20 cm-ko sakoneran aireztatuz, rotabatore edo motokultore bidez. Ondoren, ongarria erantsiko da.

Landaketa egin ondoren, udaleko arduradun teknikoak landareak sustraitzeko edo hondatzeko arazoak ikusten baditu, eta itxurazko arrazoirik ez badago, kaltetutako landare guztien ordez baldintza onetan dauden beste batzuk jarriko ditu pertsona esleipendunak.

Loraldia amaitutakoan, landare horiek kendu beharko dira. Eragiketa hori lursailaren aldez aurretiko prestatze-lanetan sartuta egongo da. Eskaintzan, jarri beharreko landareari, garaiei eta dentsitateari buruzko azterlan tekniko bat definituko da, azterketaren kalitatea baloratzeko. Sasoiko landarea ordezkatzeko lanak bereizita baloratuko dira.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

3.13. ORDEZKATZEA

Apaingarri-izaera galdu edo murriztu duten landare bizikorrak, zuhaixkak, zuhaitzak eta soropil-eremuak ordeztu, berritu edo berrerein egingo dira. Lan horiek pertsona esleipendunaren kontura izango dira, osorik, baldin eta landareen heriotza edo egoera prekarioa ureztatze-anomaliengatik, tratamendurik ezagatik, sega-kalteengatik edo berak hornitutako landareak ordezkatzean gertatutako akatsengatik gertatzen bada.

Pertsona esleipendunak urtero ordezkatuko du zuhaixka-multzoak estaltzeko materiala (pinu-azala, legar apaingarriak, etab.).

3.14. TXORKOAK MANTENTZEA

Kontratu honen barruan sartzen da zuhaitz-txorkoak mantentzea, zoladurarekiko behar bezala nibelatuta egon daitezen.

Gutxienez sei hilean behin, txorkoen saretak altxatuko dira, horiek garbitzeko, belarrak kentzeko eta landare-lurra ekartzeko.

3.15. UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOA MANTENTZEA

Ureztatze-sistema automatikoa duten eremuetan, esleipenduna arduratuko da horiek mantentzeko eta programatzeko lanak egiteaz. Ureztatze-sasoiaren aurretik, esleipendunak ureztatze-sistema automatikoen egoera berrikusiko du, sistema horiek egokitzeko eta konpontzeko, haietan kalterik egonez gero.

Sute-ahoak ez dira erabiliko ureztatzeko ura hartzeko.

Pertsona esleipendunak bere ardurapeko ureztatze-sarean hobekuntzak egin ahal izango ditu, Udalaren baimena jaso ondoren, eta hobekuntza horiek Udalaren jabetzakoak izango dira, inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik gabe.

Ureztatze automatikoko instalazioak gutxienez sei hilean behin berrikusiko dira ureztatze-denboraldian, aspertsoreek eta difusoreek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko. Ureztatze-denboraldian zehar, hilero aurkeztuko da berrikuspen horiei buruzko txostena.

Konponketak zerbitzuko langileek egingo dituzte; beraz, erabilitako materialak baino ez dira fakturatuko.

3.16. LANDARE-HONDARRAK GARRAIATZEA

Soropila mozteak eta inausketak eragindako materiala birziklapen-puntura edo konpostegira eraman beharko da; bestela, birrindu eta txorkoen betelanean erabili ahal izango da, edo konpost edo beste edozein irtenbide jasangarri gisa.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Herritarrentzako zerbitzuaren kalitatea handitzeko eta edukiontzietan utzitako materia organikoa murrizteko, gutxienez landare-hondakinak biltzeko egungo zerbitzua eskaini beharko da, eta enpresa lizitatzaileak zerbitzu hori hobetu ahal izango du.

Gaur egun, hamabost egunean behin izaten da bilketa-zerbitzua.

3.17. KANPOSANTUAK MANTENTZEA

Hilerriaren mantentze-lanak herriguneko (A eremua) zuhaitz, zuhaixka eta soropilak mantentzeko maiztasun bera izan beharko du, baita egin beharreko gainerako zereginen berbera ere (adibidez: belar txarrak kentzea, soropilen ertzak moztea, ongarritzea, fitosanitarioak aplikatzea, etab.).

3.18. SANTA MARINA INGURUA MANTENTZEA

Santa Marina inguruko segak 3.2 puntuan, segari buruzkoan (B eremua), adierazten den maiztasuna beteko du; beraz, gutxienez mozketa bat egin beharko da urtarriletik martxora bitartean, eta beste bat urritik abendura bitartean. Apiriletik irailera bitartean bi mozketa egingo dira, bata aldi honen hasieran eta bestea bigarren aldian (irailera atzeratzea saihestuz).

Gainerako lorezaintza-lanak Udalak kasu bakoitzean egokitzat jotzen dituen beharrizanen arabera aplikatuko dira (adibidez: eroritako zuhaitzak kentzea…).

3.19. OINEZKO PASABIDEAK ETA BIDEGORRIAK MANTENTZEA

Berez hazten den landaretza ezabatu egingo da, hau da, belar txarrak. Eragiketa hori mekanikoki edo eskuz egingo da, eta, horretarako, produktu kimiko egokiak erabiliko dira.

3.20. LORATEGIEN TXOSTEN TEKNIKOA EGIN ETA DISEINATZEA

Pertsona esleipendunak Udalak eskatzen dizkion lorategi-eremuen txostenak eta diseinuak aurkeztu beharko ditu.

3.21. EGINDAKO LANEN TXOSTENA PRESTATZEA

Pertsona esleipendunak urtero aurkeztu beharko du egindako lanen txostena, hautemandako gorabeherak eta Udalak agindutako lanen kontrola eta jarraipena egiteko egokitzat jotzen dituen iradokizunak adieraziz.

3.22 ESKOLAKO ORTUA

Elortza Eskolako ortua diseinatu, sortu eta mantentzeaz (eskola-garaitik kanpo, uztailean, abuztuan eta irailean) arduratuko da enpresa esleipenduna. Era berean, irakasleei lagundu, kontsultak erantzun, prestakuntza eman eta bestelakoak ere egingo ditu.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

4.- GIZA BALIABIDEAK

4.1.- Langileen gaineko betebeharrak

Esleipendunak behar diren langileak izango ditu kontserbazio-, mantentze-, birjarpen- eta hobekuntza-lanak behar bezala egiteko, agiri honetan adierazitako gutxieneko lanen baldintzetan. Langile horiek beti egongo dira bertan lanak egin bitartean, edozein kontingentzia gertatzen dela ere, bajak eta oporrak barne.

Gutxieneko lantaldea honako hau izango da:

Lanaldi osoko 4 langile egongo dira gutxienez, baita arduraldi partzialeko zerbitzuaren arduradun bat ere, zeina Udalarekiko solaskidea izango baita agiri honekin zerikusia duen guztirako.

Langileei eskatutako lanbide-kategoriak honako hauek izango dira, gutxienez:

- Pertsona arduraduna: Erdi-mailako edo goi-mailako titulua duen teknikari bat, beharrezko prestakuntza duena nekazaritzan edo basogintzan (nekazaritza edo basogintzako ingeniari teknikoa, ingeniari agronomoa, edo mendien ingeniaria), erregistro ofizialetan inskribatua (produktore eta langileen erregistro ofiziala...). Langile horrek gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatu beharko du antzeko lanak egiten, lizitazio-kontratuaren antzeko zenbatekoa edo altuago duen kontratu batean.

- Langileak: Lanak egiteko zuzeneko langileak gutxienez bi lorezain maisu, lorezain bat eta beste pertsona bat (ofizial lorezaina, lorezaina, lorezain laguntzailea, garbitzailea edo peoia) izango dira.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak langileen organigrama bat zehaztuko du, eta, bertan, behar bezala definituta geratuko dira langileen izenak, lan-kategoria, lanaldia (ordu-kopuruan adierazita), betetako lanpostuak, guztizko lanpostuak (zerbitzuaren urteko zenbaketan) eta kide bakoitzaren eginkizunak.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak langileen arloko gorabeheren berri eman beharko dio Udalari, hau da: hasierako kontratuko plantillan izandako aldaketak jakinaraziko dizkio, erretiroagatik, heriotzagatik, borondatezko bajagatik, kaleratzeagatik, aldi baterako baliaezintasunagatik, baliaezintasun iraunkorragatik eta abarrengatik gertatutakoak, bai eta zerbitzuaren beharrengatik aldatutako langileak ere.

Enpresa esleipendunaren betebeharra eta erantzukizuna izango da indarreko legedia betetzea. Horretarako, esleipendunak behar diren neurriak hartuko ditu kontratua bete dadin, baina horrek ez dio inola ere eragingo kontratatutako zerbitzuari, ez prestazio-ordutegiari dagokionez, ez formari eta baliabideei dagokienez ere.

Horretarako, nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunak Urdulizko instalazioan zerbitzuari atxikitako langileak aurrez aurre kontrolatzeko sistema bat ezartzea. Sistema horrek

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

langilearen nortasuna modu frogagarrian egiaztatzeko aukera eman beharko du, hatz-markaren bidez edo haren presentzia eraginkorra zalantzarik gabe bermatzen duen beste edozein bitarteko tekniko baliokideren bidez. Udalak fitxaketa-erregistroei dagozkien eguneroko txostenak bidaltzeko eskatuko du.

Inola ere ezin izango da kontuan hartu enpresa esleipenduneko langileek Urdulizko Udalarekin inolako lan-harremanik, kontratu-harremanik, harreman funtzionarialik edo bestelako harremanik dutenik, ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua amaitzean.

ORDUTEGIA ETA MAIZTASUNAK

Lizitatzaileek beren eskaintzetan proposatuko dituzte udalerriko baldintzetara egokitzeko hobekien iruditzen zaizkien ordutegiak, eta Udalari entzungo diote, udalerriko bizilagunei zaratak eta balizko eragozpenak eragiten dizkieten lanak egitean.

Gaueko ordutegia udan ureztatze-lanak egiteko eta, batzuetan, gauez bakarrik egin daitezkeen lan zehatzak egiteko erabil daiteke (ibilgailuen zirkulaziorako eragozpenak, fitosanitarioak aplikatzeko lanak, etab. direla eta), betiere agintari eskudunek baimentzen badute.

Larunbata, kontratuaren indarraldiak irauten duen bitartean, egun balioduna izango da lanerako, eta ezinbestekoa izango da garbiketak eta egin beharreko lanak egiteko: obretan erremateak egiteko, larrialdiko lanak egiteko, etab.

Halaber, lizitatzaileak igande eta jaiegunetako zerbitzuak aurreikusi beharko ditu, gutxienez garbiketarako, eta, udan, baita ureztatzeko ere.

Ordutegiak aldatu egin ahal izango dira, zerbitzuaren beharrizanen arabera (larrialdiak). Urte osoan zehar, udalerriko berdeguneak zainduta egon beharko dira.

ALDAGELA

Langile guztiek uniformez jantzita joan beharko dute. Uniformeak enpresaren eta Udalaren identifikatzaileak izango ditu. Langileei eman beharreko jantzien kantitatea eta kalitatea indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan adostutakoaren arabera arautuko dira beti.

Enpresa esleipendunak bere gain hartuko du jantzietan garbitasunik, txukuntasunik edo uniformetasunik ez izatearen erantzukizuna, edo langileek hirugarrenekiko ikusten duten adeitasunik ezaren edo tratu txarraren erantzukizuna, bai eta zerbitzua ematearen ondorioz udalaren ondasun eta jabetzetan hautsitako edozein kalteren erantzukizuna ere.

5.- BITARTEKO MATERIALAK

5.1.- Instalazioak

Zerbitzuaren esku jarriko dituzten instalazioak proposatuko dituzte lizitatzaileek. Instalazioek behar besteko gaitasuna izan beharko dute ibilgailu-parkea estalpean edukitzeko, eta

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

biltegirako eta ibilgailuak eta makinak mantentzeko behar den azalera izan beharko dute. Gainera, instalazio horietan dauden langileentzako aldagela eta komun egokiak eduki beharko dira.

Instalazio horiek Urdulizko udalerrian egon beharko dute, eta Udal Zerbitzu Teknikoak onartu beharko du horien kokapena, zerbitzua behar bezala emateko arriskurik ez izateko.

Instalazioak egoera onean egon beharko dira, eta uneoro irisgarritasun egokia ahalbidetuko dute, garbitasun- eta osasungarritasun-baldintza onei, suteen aurkako prebentzioari eta laneko segurtasunari dagokienez. Instalazio horiek aipatutako eremu bakoitzean aplikatu beharreko indarreko araudia bete beharko dute, eta derrigorrezkoa izango da instalazioen jarduera-lizentzia.

Instalazioen mantentze-lanen, ekipamenduaren eta instalazioen erabileraren ondoriozko gastu guztiak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

5.2.- Bestelako bitarteko materialak, ibilgailuak eta makinak

Zerbitzua emateko behar diren material, makina, erreminta eta ibilgailu guztiak enpresa esleipendunak erosi beharko ditu. Halaber, berak ordaindu beharko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean behar bezala funtzionatzeko kontserbazio- eta mantentze-gastuak ere.

Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, lanak egiteko aurreikusitako material guztiaren deskribapen xehea jasoko dute, honako hauek adierazita:

A- Udalaren erabilera esklusiborako bitarteko mekanikoen, ibilgailuen eta erreminten ezaugarri teknikoak eta ekipamenduak.
B- Ongarriak, herbizidak eta erabili beharreko tratamendu fitosanitario, prebentibo eta sendagarrietarako produktuak.
C- Kasu zehatzetan edo salbuespenetan erabiltzeko makinak.
D- Erreserbako makinak.

Honako ibilgailu eta makina hauek nahitaez atxiki beharko dira kontratura (kontratuari atxiki beharreko gutxieneko baliabideak):

- 3,5 TN-ko kamioia, atoirako bola eta guzti. (gutxienez erregai alternatiboak izango ditu, esaterako gas natural konprimitua edo PGL). [1]
- Atoi edo plantxa egokiak, makinak ibilgailuetara igotzeko.
- Ibilgailu arina, iraulki eta guzti (gutxienez erregai alternatiboak izango ditu, besteak beste gas natural konprimitua edo PGL)

1 EEEk, urtero, partikularrentzako eta pertsona juridikoentzako laguntzak eta diru-laguntzak argitaratzen ditu ordezko erregaiak dituzten ibilgailuak erosteko. Era berean, ibilgailu astunak erregai alternatiboetara (GNL eta PGL) bihurtzeko eta elektrizitatea kargatzeko guneetarako laguntzak daude. Informazio gehiago hemen: https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas?lang=eu-es

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- TRAKTOREA, moztu eta biltzekoa, gutxienez 19-21eko zaldi-potentziakoa eta gutxienez 132 cm-ko mozketa-zabalerakoa, bilketa-kutxa ateragarria duena, bildu gabeko mozketetarako.
- TRAKTOREA, MULCHING kit eta guzti, gutxienez 30eko zaldi-potentziakoa eta gutxienez 132 cm-ko mozketa-zabalerakoa, lau gurpiletan amortizazioa duena.
- 3 motozerra:
    - Eskuzko motozerra (Elektrikoa ez): 2,5eko zaldi-potentziakoa eta 35 cm-ko mozketa-zabalerakoa, Sthil MS 194T 35R
    - Motozerra handia (Elektrikoa ez): 5eko zaldi-potentziakoa eta 50 cm-ko mozketa-zabalerakoa, Sthil MS 261 C-M45R
    - Altuera-motozerra (Elektrikoa): Sthil HT 131

- Sasiak garbitzeko 3 makina (Elektrikoa ez).
- 2 haize-makina.(bat elekrikoa eta bestea ez)
- Heskaiak mozteko 2 makina (elektrikoak).
- Soropila mozteko 2 makina (Elektrikoa ez): Honda HRH 536 HXE eta Honda HRX 537 VYE edo antzekoak.
- Materia organikoa eta egurra txikitzeko makina eramangarria: Forst ST6P edo antzekoa, inausketa-garaietarako.
- Inausketa-eskailerak edota inausketa-aldamioak edota jasogailuak.

Hala ere, enpresa lizitatzailearen esku geratuko da eskainitako makineria –kualitatiboki zein kuantitatiboki – egokia dela justifikatzea, baliabide horiek ahalik eta hobekien optimizatzeko eta administratzeko.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak erreserba-bitarteko nahikoak aurreikusi beharko ditu lanen martxa normala bermatzeko. Makina guztiak kontserbazio- eta garbiketa-egoera ezin hobean egon beharko dira zerbitzua ematen den bitartean.

Zerbitzuan modu iraunkorrean erabiltzen diren ibilgailu guztiek enpresaren eta Udalaren identifikatzailea eraman beharko dute.

Eskainitako material guztia zehatz-mehatz deskribatu beharko dute lizitatzaileek, eta planoak, krokisak, argazkiak eta beharrezkotzat jotzen dituzten datu guztiak eman ahal izango dituzte, material hori ahalik eta ondoen ezagutzeko eta zerbitzurako egokia dela eta indarrean dagoen araudira egokitzen dela justifikatzeko.

Eta zer erabilgarritasun, eraginkortasun eta eremutan erabiliko den zehaztuko da.

Kontuan hartuko dira eragindako ingurumen-inpaktua murriztera bideratutako berrikuntza teknologikoak, eta arreta berezia jarriko zaio soinu-maila murrizteari.

Kontratuari atxikitzeko gutxieneko gisa deskribatutako ibilgailu eta makina guztiak kontratu honetarako bakarrik erabili behar dira, txikitzeko makina ezik, homologatuta egon behar dute, dagozkien ziurtagiriak eduki behar dituzte, eta haien funtzionaltasuna ez ezik, ingurumen- eta

irisgarritasun-irizpideak ere kontuan hartuta justifikatu behar dira, irizpide horiek lan-programarekin koherenteak izango direlarik.

Aurreko paragrafoan aipatutako ondasun guztiak mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak pertsona esleipendunak ordainduko ditu.

Eskainitako bitarteko materialen aldaketa orok udalaren baimena izan beharko du. Baimen hori emango da, hala badagokio, kontratistak aldaketaren egokitasuna justifikatzen duten txostenak aurkeztu ondoren.

Nolanahi ere, makineria guztiak –osagarriak eta zerbitzu horretarako erabiltzen diren tresnak barne– homologatuta egon beharko dira, eta dagozkion ziurtagiriak izan beharko dituzte.

Enpresa esleipendunak administrazio-agiriaren II. eranskineko 2. eta 3. atalak bete beharko ditu erabili beharreko ibilgailu, makina eta materialetan.

Kontratuari atxikitako makinek ezin izango dut 4 urte baino gehiagoko antzinatasuna izan, eta, beraz, ez da baldintza hori betetzen ez duen eskaintzarik onartuko.

Pertsona esleipendunak erabiltzen dituen ibilgailuak ezin hobeto erabili eta kontserbatu beharko dira, eta udal-zerbitzuek baztertu ahal izango dituzte baldintza horiek betetzen ez badituzte.

Zerbitzurako proposatutako ibilgailu-flotak (turismo-ibilgailuak edo merkataritza-ibilgailu arinak) gutxienez EURO 6eko errekuntza-gasen emisioak izan behar ditu. Salbuespenezko ibilgailuek ez dute baldintza hori bete beharrik izango.

Kontratuari atxikitako ibilgailuak PGLkoak izan beharko dira gutxienez, edo energia alternatiboen erregaiak erabiliko dituzte.

5.3.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen erabilera

Esleipendunak debekatuta dauka lorategietan trakzio mekanikoko ibilgailuak sartzea, kontserbazio-lanetarako beharrezkoak diren kasuetan izan ezik, hala nola, belar segatua kentzeko, inausketaren ondoriozko egurra kentzeko, landareak hornitzeko (birjartzekotan), garbiketa orokorra egiteko, etab. Salbuespeneko beste edozein kasurako, Udalaren baimen egokia lortu beharko da.

Zerbitzuaren arrazoiak direla-eta berdeguneetan ibilgailuekin sartzen denean, herritarrei eragozpenak sortzea saihestuko da, argiak egunez ere piztuta eramanez eta abiadura ertainean zirkulatuz, betiere indarrean dauden udal-ordenantzak betez.

5.4.- Eskainitako bitarteko materialen aldaketa

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Eskainitako bitarteko materialen aldaketa orok udalaren baimena izan beharko du. Baimen hori eman egingo da, hala badagokio, kontratistak aldaketaren egokitasuna justifikatzen duten txostenak aurkeztu ondoren.

6.- ZERBITZUAREN ALDERDI OROKORRAK

6.1.- Udalaren kargurako gastuak

Udalaren kontura izango dira ureztatzeko ur-kontsumoa eta ur-hornidurako sare orokorraren eta ureztatze-ahoen mantentze-lanak (pertsona esleipendunak gaizki erabiltzeagatik eragindako kalteak ezik).

Esleipendunari esleitzen zaizkion zerbitzu eta hornidura berezien kasuan, enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko prezio kontraesankorrak aplikatuko dira, kontratuan adostutako unitate-preziorik ez badago.

6.2.- Pertsona esleipendunak ordaindu beharreko gastuak

Kontratistak ordainduko beharko ditu, berak baino ez, honako gastu hauek:

a) Kontratatutako zerbitzu guztiak betetzeko behar diren lan eta hornidura guztien gastuak.
b) Datuak hartzeko eta inbentario informatizatua egin eta mantentzeko lanen gastuak.
c) Lanak egiteko behar diren baliabide mekaniko eta material guztiak eta abar eskuratzeko gastuak, bai eta horiek kontserbatu, konpondu eta birjartzekoak ere.
d) Instalazioak erosi eta mantentzearen ondoriozko gastuak.
e) Kontratatutako zerbitzuak emateko behar diren langile guztien hartzekoak eta gainerako gastuak, araudi ofizialaren arabera, bai eta horien uniformeak eta arauzko lan-ekipoak ere.
f) Ibilgailuak erabiltzeko gastu guztiak, hala nola erregaiak, olioak, ordezko piezak eta konponketak, aseguruak, etab.
g) Zerbitzuei lotutako zerbitzuak emateari eta dokumentuak izapidetzeari atxikitako zerga guztiak, BEZa barne.
h) Udal-zerbitzuek eskatuta egiten diren kalitate- eta kantitate-kontroletan jarraitutako prozeduretatik eratorritakoak, haien teknikarien edo erakunde delegatuen bitartez.
i) Segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatzetik eratorritakoak, bai eta enpresak egindako arrisku-planari erantzuten dioten norbera babesteko ekipamenduak ere.
j) Pertsona esleipendunak agiri honen xede diren lanak egitean kaltetu edo gaizki erabili duen edozein udal-ondasun jaso, ordeztu edo berritzeko gastuak.
k) Sasoiko lore-landareak eta parterren landaketetan erabiliko diren erreboildunak erosteko ardura kontratistarena izango da, baita jardineretan erabiliko diren zuhaixka-landareak, igokariak, koniferoak, bizikorrak eta urteko lore-landareak nahiz bideko zuhaitzak erostekoa ere.
l) Lurra eta silizezko harea eskuratzeko gastuak, txorkoak berdintzeko, zuloak estaltzeko, jardinerak betetzeko eta balizko isuriak estaltzeko; era berean, kontratistaren kontura izango da zurkaitzak erostea, bai zuhaitzetarako, bai zuhaixkaren baterako.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

m) Halaber, kontratista arduratuko da lur-eremuak berrelikatzeko aridoa erosteaz.
n) Kontratistak beharrezko prebentzio-neurriak hartuko ditu istripuak eta/edo era guztietako kalteak saihesteko pertsonen eta ondasunen gainean. Berdeguneetako, udal-eraikinetako eta udalaren jabetzako gainerako elementuetako edozeinetan eragindako kalte-galerak enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango dira, baldin eta kalte-galerok zabarkeriagatik, erruagatik edo agiri honen ez-betetzeagatik gertatu badira, bai eta lanak behar bezala ez egiteagatik ere.
o) Oro har, kontratua arautzen duten administrazio-klausulen eta preskripzio teknikoen agirietako gainerako ataletan horrela jasota dauden guztiak.

6.3.- Salbuespenezko edo premiazko egoerak

Salbuespen gisa, eta larrialdiren bat gertatuz gero, zerbitzuaren buruzagitzak koordinatuta, zerbitzuaren berehalako jarduketa eskatu ahal izango da, lorezaintza-lanak egiteko, eta, hala, normaltasuna udal-eremu eta bide publikoetara itzultzeko (adibidez: haizetearen ondorioz eroritako adarrak kentzea, ureztatze automatikoko instalazioan ihesak kontrolatzea). Jarduera horiek zerbitzuaren prezioaren barruan sartuko dira.

Esleipendunak guardia-zerbitzu bat izango du ohiko lan-ordutegitik kanpo sortzen diren premiazko lanei erantzuteko.

Horretarako, guardiako telefono bat izango du, eta zerbitzuaren buruzagitzak gertakarien berri emango dio.

Lizitatzaileek zerbitzu horren plangintza eta funtzionamendua adieraziko dituzte.

7.- ZERBITZUA KONTROLATZEA

7.1.- Lanak orokorrean ikuskatzea

Kontratatutako zerbitzuak etengabe ikuskatu eta zainduko ditu Udal Administrazioak, eta hark lanak behar bezala eta agirietan ezarritako moduan egiten direla egiaztatu ahal izango du, bai eta langileak eta materiala noiznahi eta nonahi berrikusi ere.

Administrazioak horretarako izendatzen dituen udal-teknikariak esleipendunaren lokaletara eta bulegoetara sartu ahal izango dira, eta behar beste datu emango zaizkie giza ekipoen eta ekipo materialen antolaketari buruz, bai eta egindako edo egin beharreko lanei buruz ere.

Era berean, egoki iritzitako jarraibideak eta zuzenketak helarazi ahal izango ditu, eta kontratista behartuta egongo da horiek betetzen direla egiaztatzeko behar diren agiri guztiak erakustera eta, bereziki, gizarte-aseguruei, bertaratze-agiriei, lan-istripuei, aseguru-polizei eta instalazioei eta materialari dagozkienak erakustera, eta, oro har, udal honen erantzukizun subsidiarioa saihestera bideratutako jarduketa guztiak baimentzera.
Ikuskapen eta kontrol zehatza egiteko, pertsona esleipendunaren betebeharra izango da:

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Egindako lan-planaren asteko aurrerapena entregatzea, aurreikusita dauden langileak, ibilgailuak eta bitarteko mekanikoak adierazita eta aldi horri esleitutako leku eta zeregin zehatzak zehaztuta.

- Hilean zehar egindako lanak eta zerbitzuan jazotzen diren inguruabarrak (gorabeherak) aurkeztea.

- Kontrata honen zerbitzuekin lotutako txostenak, proiektuak eta azterlanak prestatzea, bai eta Lorezaintzako zerbitzu teknikoek agintzen dizkioten argazki-erreportajeak ere.

- Aparteko edozein gorabehera edo esku-hartze gertatu eta berehala, Udaleko Zerbitzu Teknikoari jakinaraztea.

- Egunero (lanaldiaren hasieran) fitxaketen erregistroei dagozkien txostenak ematea.

- KONTRATUEN JARRAIPENA EGITEKO APLIKAZIOA: hornitzaileak Urdulizko Udalak eskura jarritako plataforma digitalean erregistratu beharko ditu kontratu honen ondoriozko konpromisoak eta zereginak.

8. KONTRATATZEKO GAIKUNTZAREN BETEKIZUNA. SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALA (ENS) BETETZEA

Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontratuaren xede den prestazioak Administrazio honen titulartasuneko informazio- eta/edo informazio-sistemak eskuratu, erabili edo tratatzea dakarrela kontuan hartuta, **lizitatzaileek egiaztatu beharko dute SENa betetzen dutela BAXUA segurtasun-mailan,** kontratua gauzatzeko erabiliko diren informazio-sistemei dagokienez.

Betekizun hori aplikatzekoa den sektoreko legeriak ezarritako legezko betebeharra da, beharrezkoa kontratu-prestazioa egiteko baliozkotasunez gaituta geratzeko, eta ez da kaudimen- edo esleipen-irizpidetzat hartzen.

1. Betekizunaren izaera juridikoa

SENa eskatutako segurtasun-mailan betetzea kontratatzeko gaitasunaren eta legezko gaikuntzaren betekizuntzat hartzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluan aurreikusitakoaren arabera; izan ere, erregelamendu-mailako arau batek ezarritako baldintza bat da, eta nahitaez bete behar dute informazio-sistemen esparruan administrazio publikoei zerbitzuak ematen dizkieten langile ekonomikoek.

2. Egiaztatzeko modua

Lizitatzaileek SEN maila BAXUA betetzen dutela egiaztatu beharko dute, honela:

• adostasun-adierazpena, maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Egiaztagiriak lizitazioan onartzeko eskatzen den dokumentazio administratiboarekin batera aurkeztu beharko dira.

3. Konkurrentzia-unea eta ez-betetzearen ondorioak

SPKLren 140.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza hori eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko da nahitaez, eta kontratuaren indarraldi osoan iraungo du.

Baldintza hori ez betetzeak edo baldintza hori une horretan ez egiaztatzeak enpresa lizitatzailea baztertzea ekarriko du, eta ezin izango da zuzendu terior ondoren, kontratatzeko legezko gaitasunaren eta gaikuntzaren baldintza delako.

4. Kontratua gauzatu bitartean mantentzea

Esleipendunak SENa betetzen jarraitu beharko du kontratua egikaritzen den bitartean. Egoera hori galduz gero, SPKLn eta agiri honetan aurreikusitako ondorioak aplikatu ahal izango dira, kontratua suntsiaraztea barne, hala badagokio.

Urdulizen, 2026ko urtarrilaren 15ean

Alkatea

Obra eta Zerbitzuen Saileko arduraduna

MARIA SONIA SANCHEZ RINCON - 14608073Z

Firmado digitalmente por MARIA SONIA SANCHEZ RINCON - 14608073Z
Fecha: 2026.02.03 11:07:40 +01'00'

Elortza plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tel.: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40